

**GARRAIO, MUGIKORTASUN ETA HIRI AGENDAREN  
MINISTERIOAREN ETA ARABAKO FORU  
ALDUNDIAREN ARTEKO HITZARMENA, EGUNGO AP-1  
AUTOBIDEAREN ETA A-1 AUTOBIAREN ARTEKO  
LOTURAREN BI NORANZKOETAKO SARRERA  
ADARREN GAITASUNA HANDITZEKO OBRAK  
FINANTZATU ETA GAUZATZEKO, ARMIÑONGO  
LOTUNEAN**

**CONVENIO ENTRE EL MINISTERIO DE TRANSPORTES,  
MOVILIDAD Y AGENDA URBANA Y LA DIPUTACIÓN  
FORAL DE ÁLAVA PARA LA FINANCIACIÓN Y  
EJECUCIÓN DE OBRAS DE AMPLIACIÓN DE  
CAPACIDAD DE LOS RAMALES DE ACCESO EN AMBOS  
SENTIDOS DE LA CONEXIÓN DE LA ACTUAL AP-1 CON  
LA A-1 EN EL ENLACE DE ARMIÑÓN**



**GARRAIO, MUGIKORTASUN ETA HIRI  
AGENDAREN MINISTERIOAREN ETA ARABAKO  
FORU ALDUNDIAREN ARTEKO HITZARMENA,  
EGUNGO AP-1 AUTOBIDEAREN ETA A-1  
AUTOBIAREN ARTEKO LOTURAREN BI  
NORANZKOETAKO SARRERA ADARREN  
GAITASUNA HANDITZEKO OBRAK FINANTZATU  
ETA GAUZATZEKO, ARMIÑONGO LOTUNEAN**

....., 2021eko ... aren.....(a)

**BILDUTAKOAK**

Alde batetik,

Isabel Pardo de Vera Posada andrea, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren estatu idazkaria, uztailaren 27ko 669/2021 Errege Dekretuaren bidez egindako izendapenaren arabera, eta Sustapen Ministerioan eskumenak eskuordetzeari buruzko uztailaren 23ko FOM/1644/2012 Aginduaren, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioaren egitura organikoa garatzen duen uztailaren 7ko 645/2020 Dekretuak berretsi duenaren, zazpigarren.1 apartatuan eskuordetutako eskumenak baliatuta, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioaren ordezkari izan

Eta, beste aldetik,

Ramiro González Vicente jauna, Arabako diputatu nagusia, Arabako Foru Aldundiaren ordezkari izan, Arabako Foru Aldundiaren Antolamenduari, Funtzionamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 19.2 artikuluan ezarritakoaren arabera (ALHAO, urtarrilaren 25ekoa, 9/1993 zk.).

Bi alderdiek, bakoitzak esku hartzen duen moduan, hitzarmen hau sinatzeko legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta, horretarako, honako hau

**CONVENIO ENTRE EL MINISTERIO DE  
TRANSPORTES, MOVILIDAD Y AGENDA  
URBANA Y LA DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA  
PARA LA FINANCIACIÓN Y EJECUCIÓN DE  
OBRAS DE AMPLIACIÓN DE CAPACIDAD DE LOS  
RAMALES DE ACCESO EN AMBOS SENTIDOS DE  
LA CONEXIÓN DE LA ACTUAL AP-1 CON LA A-1  
EN EL ENLACE DE ARMIÑÓN**

En ....., a ... de ..... de 2021

**REUNIDOS**

De una parte,

D<sup>a</sup>. Isabel Pardo de Vera Posada, Secretaria de Estado de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana, en virtud del nombramiento efectuado mediante Real Decreto 669/2021, de 27 de julio, y en el ejercicio de las competencias delegadas en el apartado Séptimo.1 de la Orden FOM/1644/2012, de 23 de julio, sobre delegación de competencias en el Ministerio de Fomento, ratificada por Real Decreto 645/2020, de 7 de julio, por el que se desarrolla la estructura orgánica básica del Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana, en representación del Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana

Y de otra,

D. Ramiro González Vicente, Diputado General de Álava, en representación de la Diputación Foral de Álava, de acuerdo con lo previsto en el artículo 19.2 de la Norma Foral 52/1992, de 18 de diciembre, de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Álava (BOTHA N<sup>o</sup>9/1993, de 25 de enero).

Ambas partes, en la calidad en que cada uno interviene, se reconocen recíprocamente la capacidad legal para el otorgamiento del presente convenio, a cuyo efecto

## ADIERAZTEN DUTE

**Lehenengoa.** Konstituzioak, 149.1.21 artikuluan, estatuari ematen dio autonomia erkidego baten baino gehiagoren lurraldetik igarotzen diren trenbideen eta lehorreko garraioen gaineko eskumen eskusiboa.

**Bigarrena.** Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak onartutako Euskal Herriko Autonomia Estatutuak 10.34 artikuluan xedatzen duenez, errepide eta bideen arloan, Konstituzioaren 148.1.5 artikuluan jasotako eskumenez gain, lurralde historikoetako foru-aldundiek oso-osorik gordeko dituzte beren araubide juridikoa eta eskumenak, edo, hala badagokio, autonomia estatutu horren 3. artikulua araberaren berreskuratu beharrekoak. Halaber, aipatutako konstituzio aginduak aukera ematen die autonomia erkidegoei ibilbide osoa autonomia erkidegoaren lurraldean egiten duten errepideen arloko eskumenak beren gain hartzeko, bai eta, baldintza berberetan, bide horretako garraioa ere.

**Hirugarrena.** Irailaren 26ko 2769/1980 Errege Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoari eman zitzaizkion errepideen arloko eginkizun eta zerbitzuak. Haien legezko erreferentziak Konstituzioaren lehen xedapen gehigarrian, Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 10.34 eta 10.35 artikuluetan eta, zeharka, Errepideei buruzko abenduaren 19ko 51/74 Legea egokitzeari buruzko azaroaren 7ko 3140/1975 Errege Dekretuan daude (Arabako Foru Aldundiari esleitu zizkion Arabatik igarotzen diren estatuko errepide zatien gaineko eskumenak).

**Laugarrena.** "Euskal Autonomia Erkidegoari irailaren 26ko 2769/1980 Errege Dekretuaren bidez errepideen arloan eman zitzaizkion Estatuko Administrazioaren eginkizunak eta zerbitzuak gehitzeari buruzko abenduaren 3ko

## EXPONEN

**Primero.** La Constitución, en el artículo 149.1.21.ª, reserva al Estado la competencia exclusiva sobre ferrocarriles y transportes terrestres que transcurran por el territorio de más de una Comunidad Autónoma.

**Segundo.** El artículo 10.34 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, aprobado por la Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, establece que, en materia de carreteras y caminos, además de las competencias contenidas en el apartado 5, número 1, del artículo 148 de la Constitución, las Diputaciones Forales de los Territorios Históricos conservarán íntegramente el régimen jurídico y competencias que ostentan o que, en su caso, hayan de recobrar a tenor del artículo 3 de dicho Estatuto de Autonomía. A su vez, el precepto constitucional citado permite a las comunidades autónomas asumir competencias en materia de carreteras cuyo itinerario se desarrolle íntegramente en el territorio de la comunidad autónoma y, en los mismos términos, el transporte desarrollado por este medio.

**Tercero.** Mediante el Real Decreto 2769/1980, de 26 de septiembre, se traspasaron a la Comunidad Autónoma del País Vasco funciones y servicios en materia de carreteras, cuyos referentes legales se encuentran en la Disposición Adicional Primera de la Constitución, en los artículos 10.34 y 10.35 del Estatuto de Autonomía del País Vasco, y de forma indirecta en el Real Decreto 3140/1975, de 7 de noviembre, sobre adaptación de la Ley 51/74, de 19 de diciembre, de Carreteras, que atribuyó a la Diputación Foral de Álava las competencias sobre los tramos de carreteras estatales que pasan por territorio alavés.

**Cuarto.** Que mediante "Real Decreto 1414/2018, de 3 de diciembre, de ampliación de funciones y servicios de la Administración del Estado traspasados a la Comunidad Autónoma del País Vasco por el Real Decreto

1414/2018 Errege Dekretuaren” bidez, Euskal Autonomia Erkidegoari ematen zaio, alde batetik, AP-1 autobidearen zatiaren titulartasuna, Burgos eta Araba probintzien arteko mugaren (77+200 kilometro puntua) eta autobidearen amaieraren (Armiñongo 7. lotunea, 83+200 kilometro puntua) artekoa, bidesaririk gabe erabiltzeko; bestetik, orain arte Estatuko Administrazio Orokorak bete dituen eginkizunak eta zerbitzuak, Arabako Foru Aldundiak arlo horretan dituen eskumenak alde batera utzi gabe.

**Bosgarrena.** Bestalde, martxoaren 26ko 48/2019 Dekretuaren eta martxoaren 26ko 17/2019 Foru Dekretuaren bidez, Eusko Jaurlaritzaren eta Arabako Lurralde Historikoaren arteko Transferentzien Bitariko Batzordearen 2019ko martxoaren 20ko Akordioa onartu zen, aipatutako autobide zatia Arabako Foru Aldundiari emateko. Dekretu horiek argitaratzen direnetik aurrera izango ditu ondorioak (2019ko apirilaren 1ean argitaratu ziren).

**Seigarrena.** Errepidea kudeatzeko sistema aldatu denez, beharrezkoa da erabiltzailearentzako ordainpeko autobide gisa proiektatu zen egungo azpiegitura ordainsaririk gabeko kudeaketa eredu berri bati egokitzea.

Horretarako, AP-1 autobidearen eta A-1 autobidearen arteko egungo loturan, obrak egin behar dira bi noranzkoetako sarrera adarren gaitasuna handitzeko, abenduaren 3ko 1414/2018 Errege Dekretuaren eranskinaren B)3 apartatuan jasotzen den moduan.

**Zazpigarrena.** 1. akordio osagarrian ezartzen denez, AP-1 autobidea A-1 autobiarekin lotzeko bi noranzkoetan sarrera adarren gaitasuna handitzeko jarduketak dagokion hitzarmenaren bidez adostuko dira, eta hitzarmen horretan zehaztuko da finantzaketa estatuak bere gain hartuko dela.

2769/1980, de 26 de septiembre, en materia de carreteras”, se traspasa a la Comunidad Autónoma del País Vasco la titularidad del tramo de la autopista AP-1 entre el límite entre las provincias de Burgos y Álava, en el punto kilométrico 77+200, y el final de la autopista en el enlace 7 de Armiñón, en el punto kilométrico 83+200, en condiciones de uso libre de peaje, así como las funciones y servicios correspondientes hasta ahora ejercidos por la Administración General del Estado, sin perjuicio de las competencias que ostenta la Diputación Foral de Álava en esta materia.

**Quinto.** Por otra parte, mediante Decreto 48/2019, de 26 de marzo, y por Decreto Foral 17/2019, de 26 de marzo, se aprobó el Acuerdo de 20 de marzo de 2019, de la Comisión Mixta de Transferencias Gobierno Vasco –Territorio Histórico de Álava, para el traspaso a esta Diputación Foral de Álava del citado tramo de autopista, con efectos a partir de la publicación de los citados decretos, publicación que se realizó el pasado 1 de abril de 2019.

**Sexto.** Que, con motivo del cambio en el sistema de gestión de la carretera, resulta necesario adaptar la actual infraestructura, que fue proyectada como autopista de peaje al usuario, a un nuevo modelo de gestión libre de peaje.

Para ello la conexión de la actual AP-1 con la A-1 requiere obras consistentes en la ampliación de capacidad de los ramales de acceso en ambos sentidos, como se contempla en el apartado B)3 del Anexo al Real Decreto 1414/2018, de 3 de diciembre.

**Séptimo.** Que en el Acuerdo Complementario número 1 se establece que las actuaciones tendentes a la ampliación de la capacidad de los ramales de acceso en ambos sentidos en la conexión de la AP-1 con la A-1 se acordarán a través del correspondiente convenio, en el que se determinará que la financiación es asumida por el Estado.

**Zortzigarrena.** Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioak eta Arabako Foru Aldundiak premiazkoztat jotzen dute egungo AP-1 autobidearen eta A-1 autobiareneko loturaren bi noranzkoetako sarrera adarren gaitasuna handitzeko obrak egitea, Armiñongo lotunean.

Azaldutako guztia aintzat hartuta, alderdiek hitzarmen hau sinatzea erabaki dute, klausula hauen arabera:

### KLAUSULAK

#### LEHENENGOA. HITZARMENAREN XEDEA

Hitzarmen honen xedea da Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko lankidetzarako araubidea zehaztea, egungo AP-1 autobidearen eta A-1 autobiareneko loturaren bi noranzkoetako sarrera adarren gaitasuna handitzeko obrak finantzatu eta gauzatzeko, Armiñongo lotunean.

Obra horien artean, bide banaketa bat dago Irun-Madril noranzkoan, eta elkargune bat Madril-Irun noranzkoan.

#### BIGARRENA. EPEA

Hitzarmena indarrean egongo da obrak jaso eta likidatu arte, eta gehienez ere lau urteko epean (eraginkorra den egunetik zenbatzen hasita), estatuko sektore publikoko Lankidetzaren Organoa eta Tresnen Estatuko Erregistro Elektronikoan inskribatu eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren.

Amaierako epea aurreko puntuan ezarritakoa den arren, honako epe partzial hauek ere ezartzen dira:

Eraikuntzako azterlanak eta proiektuak idazteko epea hamasei hilabetekoa izango da, hitzarmen hau sinatzen denetik aurrera, epe hori betetzea eragozten duten behar bezala justifikatutako arrazoiak daudenean izan ezik. Arrazoi horiek

**Octavo.** Que el Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana y la Diputación Foral de Álava consideran urgente acometer las obras de ampliación de capacidad de los ramales de acceso en ambos sentidos de la conexión de la actual AP-1 con la A-1 en el enlace de Armiñón.

Conforme a lo expuesto, ambas partes acuerdan suscribir el presente convenio, de conformidad con las siguientes:

### CLÁUSULAS

#### PRIMERA. OBJETO DEL CONVENIO

Este convenio tiene por objeto establecer el régimen de colaboración entre el Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana y la Diputación Foral de Álava para la financiación y ejecución de las obras de ampliación de capacidad de los ramales de acceso en ambos sentidos de circulación de la conexión de la actual AP-1 con la A-1 en el enlace de Armiñón.

Tales obras incluyen una bifurcación en el sentido Irún-Madrid y una confluencia en el sentido Madrid-Irún.

#### SEGUNDA. PLAZO

El convenio estará vigente hasta la recepción y liquidación de las obras y, como máximo, por un plazo de 4 años desde la fecha en que sea eficaz, una vez inscrito en el Registro Electrónico estatal de Órganos e Instrumentos de Cooperación del sector público estatal y publicado en el Boletín Oficial del Estado.

Sin perjuicio, del plazo total establecido en el punto anterior, se fijan los siguientes plazos parciales:

El plazo para la redacción de estudios y proyectos de construcción será de dieciséis meses a partir de la firma del presente convenio, salvo que concurran razones debidamente justificadas que impidan el

hitzarmen honen Programazio, Jarraipen eta Kontrolerako Bitariko Batzordeak balioetsi beharko ditu.

Obrak lizitatu eta hasteko epea hogeita bi hilabetekoa izango da, hitzarmen hau sinatzen denetik aurrera, epe hori betetzea eragozten duten behar bezala justifikatutako arrazoiak daudenean izan ezik. Arrazoi horiek Programazio, Jarraipen eta Kontrolerako Bitariko Batzordeak balioetsi beharko ditu.

Hitzarmena beste lau urtez luzatu ahal izango da gehienez, dagokion gehigarria izapidetuz.

#### **HIRUGARRENA. FINANTZAKETA**

1. Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioak finantzatuko ditu hitzarmen honen xede diren obrak, bai eta Arabako Lurralde Historikoan ukitutako ondasun eta eskubideak gauzatzeko behar diren laguntza teknikoak eta desjabetzeak ere, hitzarmen honetan finkatzen den moduan. Gastuen aurrekontuko VII. kapituluan helburu horretarako esleitzen zaizkion zuzkiduren kontura egingo da, Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko urte bakoitzeko Legearen bidez (17.38.453B.76810 aurrekontu-aplikazioa) edo horren ordezkoko baliokidearen bidez.

2. Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioak finantzatuko ditu Trebiñuko Konderrian ukitutako obrak gauzatzeko behar diren ondasun eta eskubideen desjabetzeak, hitzarmen honetan finkatzen den moduan. Gastuen aurrekontuko VI. kapituluan helburu horretarako esleitzen zaizkion zuzkiduren kontura egingo da, Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko urte bakoitzeko Legearen bidez (17.38.453B0.600 aurrekontu-aplikazioa) edo horren ordezkoko baliokidearen bidez.

cumplimiento de dicho plazo, que deberán ser apreciadas por la comisión mixta de programación, seguimiento y control de este convenio.

El plazo para la licitación e inicio de las obras será de veintidós meses a partir de la firma del presente convenio, salvo que concurran razones debidamente justificadas que impidan el cumplimiento de dicho plazo, que deberán ser apreciadas por la comisión mixta de programación, seguimiento y control de este convenio.

La vigencia del convenio podrá prorrogarse por un período de hasta cuatro años adicionales, mediante la tramitación de la adenda correspondiente.

#### **TERCERA. FINANCIACIÓN**

1. La financiación de las obras objeto del presente convenio, así como de las asistencias técnicas y de las expropiaciones, necesarias para su ejecución, de los bienes y derechos afectados en el Territorio Histórico de Álava, en los términos que se fijan en este convenio, será realizada por el Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana, con cargo a las dotaciones que a este fin se le asignen en el capítulo VII de su presupuesto de gastos, por la Ley de Presupuestos Generales del Estado de cada año, aplicación presupuestaria 17.38.453B.76810, o equivalente que la sustituya.

2. La financiación de las expropiaciones, necesarias para la ejecución de las obras, de los bienes y derechos afectados en el Condado de Trebiño, en los términos que se fijan en el presente convenio, será realizada por el Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana, con cargo a las dotaciones que se le asignen en el capítulo VI de su presupuesto de gastos, por la Ley de Presupuestos Generales del Estado de cada año, aplicación presupuestaria 17.38.453B.600, o equivalente que la sustituya.

3. Aipatutako jarduketaren kostua, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioak finantzatu beharrekoa eta Arabako Foru Aldundiak gauzatu beharrekoa, HAMASEI MILIOI EURO dela kalkulatu da, proiektuak idazteko, desjabetzeak egiteko, obrak gauzatzeko eta horiek garatzeko behar diren laguntza teknikoak emateko kostua barne, urteka honela banatuta:

Urtea Año	Zenbatekoa (euroak) Importe (euros)
2021	5.000
2022	395.000
2023	1.200.000
2024	7.000.000
2025	7.400.000

4. Trebiñuko Konderrian ukitutako ondasun eta eskubideen desjabetzei dagokien aipatutako jarduketaren kostua, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioak finantzatu eta betearazi beharrekoa, EHUN ETA HOGEI MILA EURO izango da, urteka honela banatuta.

Urtea Año	Zenbatekoa (euroak) Importe (euros)
2022	20.000
2023	100.000

5. Nolanahi ere, behin betiko kostuak onartutako eraikuntza proiektuen eta adjudikazioen ondoriozkoak izango dira. Jarduketaren zenbateko osoa klausula honetan kalkulatuakoa baino handiagoa bada, soberakina finantzatzeko beste akordio bat beharko dute alderdiek, indarrean dagoen legeriaren arabera eskatu daitezkeen izapideak eta betekizunak bete ondoren.

6. Arabako Foru Aldundiak, urte bakoitzeko lehen hiruhilekoan, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioari jakinaraziko dio

3. El coste de las actuaciones antedichas, a financiar por el Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana, y a llevar a cabo por la Diputación Foral de Álava, se estima en DIECISÉIS MILLONES DE EUROS, incluyendo el coste de redacción de los proyectos, de las expropiaciones, de ejecución de las obras, y de las asistencias técnicas necesarias para su desarrollo, con la siguiente distribución de anualidades:

4. El coste de las actuaciones antedichas, correspondiente a las expropiaciones de los bienes y derechos afectados en el Condado de Treviño, a financiar y a ejecutar por el Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana, se estima en CIENTO VEINTE MIL EUROS, con la siguiente distribución de anualidades:

5. No obstante, los costes definitivos serán los que resulten de los proyectos de construcción aprobados y de las correspondientes adjudicaciones. Si el importe total de la actuación excediera del estimado en esta cláusula, la financiación del exceso requerirá nuevo acuerdo entre las partes, previo cumplimiento de los trámites y requisitos que sean exigibles de conformidad con la legislación vigente.

6. La Diputación Foral de Álava, en el primer trimestre de cada anualidad, comunicará al Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda

urte horretarako aurreikusitako zenbatekoa. Horretarako, hitzarmen honen xede diren obrak gauzatzeko eta horien ondoriozko laguntza teknikoak eta desjabetzeak ordaintzeko dauden gastu konpromisoak egiaztatuko ditu. Hitzarmenean aurreikusitako urte osoko kopuruak betetzean akatsik gerta ez dadin, aurkeztutako dokumentazioa aztertuta hitzarmenean finkatutako urte osoko kopuruarekiko beherako desbideratzeak ikusten badira, urte osoko kopuruak doitu beharko dira, indarreko legeriaren arabera eskatu daitezkeen izapideak eta baldintzak bete ondoren.

7. Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioak urte osoko kopuruetan egindako ekarpenak (aurreko taulan adierazita daude) aurrekontuetan kreditua egoteak bermatuko ditu.

8. Baldin eta Aurrekontuen Legeak hitzarmen honetan jasotako konpromisoa baino zenbateko txikiagoko partida bat esleitzen badu, urte osoko kopuruak berriz doitu beharko dira; hala, defizitaren zenbatekoa hurrengo urteetako kopuruei esleituko zaie, ahal bada, nahitaezko izapide eta baldintza guztiak bete ondoren.

#### **LAUGARRENA. JUSTIFIKAZIOA ETA ORDAINKETA**

1. Arabako Foru Aldundiak, hitzarmena indarrean dagoen aurrekontu-ekitaldi bakoitzeko azaroaren 30a baino lehen, ekitaldian egindako inbertsioa justifikatuko dio hitzarmen honen Programazio, Jarraipen eta Kontrolerako Bitariko Batzordeari, transferentzia jasoko duen organoaren titularrak emandako ziurtagiri baten bidez (jarduketak egin izana jasoko da bertan). Horrekin batera, Arabako Foru Aldundiko kontuhartzaitzak edo kontrol-organo baliokideak emandako txostena aurkeztu beharko da, egindako jarduketak eta ordainketak justifikatzeko dokumentazioa egiazkoa eta erregularra dela ziurtatzeko.

Urbana el importe previsto para esa anualidad, mediante acreditación de los compromisos de gastos existentes para la ejecución de las obras objeto del presente convenio, y para el pago de las asistencias técnicas y expropiaciones derivadas de las mismas. Con el fin de evitar que se produzcan fallos en el cumplimiento de las anualidades previstas en el convenio, si a la vista de la documentación aportada se observan desviaciones a la baja respecto a la anualidad fijada en el convenio se realizará el reajuste de las anualidades necesario previo cumplimiento de los trámites y requisitos que sean exigibles de conformidad con la legislación vigente.

7. Las aportaciones por parte del Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana para las anualidades reflejadas en la tabla anterior estarán soportadas por la existencia de crédito en los correspondientes presupuestos.

8. Si la Ley de Presupuestos de un año asigna una partida de importe inferior al compromiso establecido en este convenio, se reajustarán las anualidades de manera que el importe deficitario se asignará a las anualidades siguientes si ello fuese posible, previo cumplimiento de todos los trámites y requisitos que resulten preceptivos.

#### **CUARTA. JUSTIFICACIÓN Y PAGO**

1. La Diputación Foral de Álava, antes del 30 de noviembre de cada uno de los ejercicios presupuestarios de vigencia del convenio, justificará, ante la Comisión Mixta de Programación, Seguimiento y Control de este convenio, la inversión ejecutada durante el ejercicio, mediante un certificado, emitido por el titular del órgano que vaya a recibir la transferencia, en el que se acredite la realización de las actuaciones, el cual deberá acompañarse de informe emitido por la Intervención u órgano de control equivalente de la Diputación Foral de Álava que acredite la veracidad y regularidad de la documentación justificativa de las actuaciones y los pagos realizados.



2. Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioak, urtero, abenduaren 31 baino lehen, Arabako Foru Aldundiari transferituko dio hitzarmen honen arabera urte bakoitzerako konprometitutako zenbatekoa, aldez aurretik honako hau egiaztatuz, aurreko 3. puntuaren ezarritako moduan: obrak gauzatzean eta laguntza teknikoak eta desjabetzeak ordaintzean justifikatutako gastuak, eta nahitaezko izapide eta betekizun guztiak bete ondoren.

3. Urtean egindako inbertsioa aurreikusitakoa baino txikiagoa bada, aldea hurrengo ekitaldian jasoko da geldikin gisa, betiere Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean hala ezartzen bada. Bestela, hurrengo urte osoko kopuruetan doitu da, egin ahal bada, nahitaezko izapide eta betekizun guztiak bete ondoren.

4. Urtean egindako inbertsioa aurreikusitako urte osoko kopurua baino handiagoa bada, aldea etorkizuneko ekitaldiei egotziko zaie, betiere aurrekontuetan krediturik badago.

5. 3. paragrafoan ezarritako datan eta abenduaren 31ra arte urteko likidazioa aurkeztu ondoren gauzatutako zenbatekoa hurrengo urte osoko kopuruaren likidazioan sartuko da, justifikatu ondoren.

#### **BOSGARRENA. ARABAKO FORU ALDUNDIAREN BETEBEHARRAK**

Arabako Foru Aldundiak, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailaren bitartez, konpromiso hauek hartzen ditu:

a) Proiektu teknikoa idaztea, alderdiek adostutako ezaugarri teknikoekin.

b) Proiektuak onestea Arabako Lurralde Historikotik igarotzen den zatian.

2. El Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana transferirá, antes del 31 de diciembre de cada año, a la Diputación Foral de Álava, el importe comprometido en virtud del presente convenio para cada anualidad, previa acreditación, en la forma prevista en el punto 3 anterior, de los gastos justificados en la ejecución de las obras y en el pago de las asistencias técnicas y expropiaciones, y previo cumplimiento de todos los trámites y requisitos que resulten preceptivos.

3. Si la inversión ejecutada durante el año es inferior a la anualidad prevista, la diferencia se incorporará como remanente al ejercicio siguiente, siempre que así este previsto en la correspondiente Ley de Presupuestos Generales del Estado. En otro caso se reajustará a las anualidades siguientes si ello fuese posible, previo cumplimiento de todos los trámites y requisitos que resulten preceptivos.

4. Si la inversión ejecutada durante el año supera la anualidad prevista, la diferencia se imputará a los ejercicios futuros, siempre que exista crédito en los correspondientes presupuestos.

5. El importe ejecutado con posterioridad a la presentación de la liquidación anual en la fecha prevista en el apartado 3 y hasta el 31 de diciembre, se incluirá, previa justificación, en la liquidación de la siguiente anualidad.

#### **QUINTA. OBLIGACIONES DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA**

La Diputación Foral de Álava, a través del Departamento de Infraestructuras Viarias y Movilidad, asume los siguientes compromisos:

a) La redacción de los Proyectos Técnicos, con las características técnicas acordadas por las partes.

b) La aprobación de los Proyectos en el tramo que discurre por el Territorio Histórico de Álava.

c) Proiektuen eraginpean dauden Arabako Lurralde Historikoko ondasunak eta eskubideak desjabetzea.

d) Hitzarmen honen xede diren proiektu osoen obra guztiak kontratatzea.

e) Kontratutako obrak zuzentzea, ikuskatzea eta kontrolatzea.

f) Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioari behar besteko aurrerapenarekin jakinaraztea hitzarmen honen bidez finantzatutako obrak noiz jarriko diren martxan, hala badagokio, helburu honekin: Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioak ordezkari bat izendatzea zerbitzuan jartzeko ekitaldira joateko.

g) Obren kartel dibulgatzaileetan adierazi beharko da Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioak finantza arloan egindako ekarpena. Informazio horrek gutxienez kartel bakoitzeko azaleraren % 25 hartuko du, eta testu hau jasoko du: "Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioak finantzatutako obra", Ministerioaren armarri ofizialarekin batera.

#### **SEIGARRENA. GARRAIO, MUGIKORTASUN ETA HIRI AGENDAREN MINISTERIOAREN BETEBEHARRAK**

Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioak konpromiso hauek hartzen ditu:

a) Proiektuak idazteko kostua finantzatzea.

b) Hala badagokio, Trebiñuko Konderritik igarotzen den zatiko proiektuak onestea.

c) Trebiñuko Konderritik igarotzen den zatiko proiektuek eragindako ondasunak eta eskubideak desjabetzea.

c) La expropiación de los bienes y derechos afectados por los Proyectos en el Territorio Histórico de Álava.

d) La contratación de la totalidad de las obras de los Proyectos completos objeto de este Convenio.

e) La Dirección, Inspección y Control de la ejecución de las obras contratadas.

f) Comunicar al Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana con suficiente antelación la fecha de puesta en servicio de las obras que sean financiadas por este convenio, al objeto, en su caso, de que el Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana pudiera designar un representante para asistencia al acto de puesta en servicio.

g) Deberá reflejar en los carteles divulgativos de las obras la contribución financiera del Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana ocupando esa información al menos el 25% de la superficie de cada cartel, con el siguiente texto: "Obra financiada por el Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana" acompañado del escudo oficial del mismo.

#### **SEXTA. OBLIGACIONES DEL MINISTERIO DE TRANSPORTES, MOVILIDAD Y AGENDA URBANA**

El Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana asume los siguientes compromisos:

a) La financiación del coste de redacción de los Proyectos.

b) La aprobación de los Proyectos en el tramo que, en su caso, discurra por el Condado de Treviño.

c) La expropiación de los bienes y derechos afectados por los Proyectos en el tramo que discurra por el Condado de Treviño.

d) Hitzarmen honen xede diren proiektu osoen obra guztiak gauzatzeko kostua finantzatzea, onartutako proiektuekin bat etorritz.

#### **ZAZPIGARRENA. AZTERLANAK ETA PROIEKTUAK**

Irun-Madril noranzkoko bide banaketaren eta Madril-Irun noranzkoko elkargunearen gaitasuna handitzeko proiektuak –Arabako Foru Aldundiak idatzi beharrekoak– egingo dira alderdiek adostutako ezaugarri teknikoen arabera, Errepideen Jarraibidearen "Trazadura" 3.1-IC Arauan xedatutako irizpideekin bat etorritz. Trafikoko azterlanen arabera zehaztuko da bi noranzkoetako lotura osoan behar den zerbitzu maila, eta, nolahi ere, Estatuko Errepide Sareko antzeko ezaugarriak dituzten errepideen berdina izan beharko du.

#### **ZORTZIGARRENA. HITZARMENAREN JARRAIPENA**

1. Hitzarmen honen programazio, jarraipen eta kontrolerako bitariko batzordea sortuko da. Honako hauek osatuko dute:

- Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioiko Errepideetako Zuzendaritza Nagusiko bi ordezkari; haietako bat batzordeburua izango da, eta bestea, batzordekidea.
- Arabako Foru Aldundiko bi ordezkari; haietako bat batzordearen idazkaria izango da, eta bestea, batzordekidea.

2. Aztertu beharreko gaien izaeraren arabera egokitzat jotzen dituen teknikarien aholkularitza jaso ahal izango du batzordeak.

3. Bitariko batzordeak ohiko bilkurak egingo ditu hitzarmena gauzatu artean, hiru hilean behin, eta ezohiko bilkurak aztertu beharreko gaiak hala eskatzen duen guztietan,

d) La financiación del coste de ejecución de la totalidad de las obras de los Proyectos completos objeto de este Convenio, de acuerdo con los Proyectos que se aprueben.

#### **SÉPTIMA. ESTUDIOS Y PROYECTOS**

Los Proyectos de ampliación de capacidad de la bifurcación en el sentido Irún-Madrid, y de la confluencia en el sentido Madrid-Irún, a redactar por la Diputación Foral de Álava, se realizarán con las características técnicas que acuerden las partes, de conformidad con los criterios establecidos en la Norma 3.1-IC "Trazado" de la Instrucción de Carreteras, definiéndose según los estudios de tráfico el nivel de servicio requerido en toda la conexión en ambos sentidos, que deberá en todo caso ser igual al de las carreteras de similares características de la Red de Carreteras del Estado.

#### **OCTAVA. SEGUIMIENTO DEL CONVENIO**

1. Se crea una comisión mixta de programación, seguimiento y control de este convenio. La misma estará formada:

- Dos representantes de la Dirección General de Carreteras del Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana, que ostentarán la presidencia de la comisión y una vocalía.
- Dos representantes de la Diputación Foral de Álava, que ostentarán la secretaría de la comisión y una vocalía.

2. La comisión podrá contar con el asesoramiento del personal técnico que juzgue conveniente, de acuerdo con la naturaleza de los asuntos a tratar.

3. La comisión mixta se reunirá a lo largo de la ejecución del convenio en sesión ordinaria una vez al trimestre, y extraordinaria siempre que lo requiera el asunto a tratar, a solicitud de una de

alderdietako batek hala eskatuta.

4. Bilkurak aurrez aurre edo telematikoki, bideokonferentziaren bidez, egin ahalko dira.

5. Batzordearen egitekoak honako hauek izango dira:

a) Hitzarmeneko jarduketan programazioa eta jarraipena egitea, hala badagokio, beharrezkotzat jotzen diren aldaketak proposatuz.

b) Aurretiaz, hitzarmen honen esparruan egiten diren proiektuen onarpenaren berri ematea.

c) Proiektuen koordinazioa ziurtatzea, haiek idatzi, izapidetu eta gauzaten diren bitartean.

d) Aurretiaz, hitzarmen honen arabera egingo diren kontratazioen berri ematea.

e) Kasu bakoitzerako behar diren izapideak lehenbailehen sustatzea.

f) Oro har, hitzarmen honen xede diren obren plangintzan, egikaritzean eta finantzaketan izandako administrazio-jarduketa erabakitzaile guztien berri ematea aldeztu aurretik.

g) Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioak urtero Arabako Foru Aldundiari egingo dizkion kreditu-transferentzien aurretik aldeko txostena egitea, eta, gauzatutako jarduerak justifikatzea nahikoa ez balitz, honako hau zehaztea: bidezkoa den aurreikusitako urteko kopuru osoa baino zenbateko txikiagoa igortzea edo bertan behera uztea, geldikina ondoz ondoko urteetan birprogramatzea proposatuz.

h) Estatuko Administrazio Orokorraren eta Arabako Foru Aldundiaren artean informazioa trukatzeko delakoa bermatzea.

las partes.

4. Las reuniones podrán celebrarse de forma presencial o telemática, por videoconferencia.

5. Las funciones de la comisión serán las siguientes:

a) Realizar la programación y seguimiento de las actuaciones del convenio proponiendo, en su caso, las variaciones que se consideren precisas.

b) Informar, con carácter previo, la aprobación de los proyectos que se realicen en el ámbito del presente convenio.

c) Asegurar la coordinación de los diversos proyectos durante el periodo de su redacción, tramitación y ejecución.

d) Informar, con carácter previo, las contrataciones que se efectúen al amparo del presente Convenio.

e) Impulsar, con la mayor celeridad, los trámites requeridos en cada caso.

f) Con carácter general, informar previamente todas las actuaciones administrativas de índole decisoria que se produzcan en el planeamiento, ejecución y financiación de las obras objeto de este convenio.

g) Emitir informe favorable previo a las transferencias de crédito que el Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana efectuará cada año a favor de la Diputación Foral de Álava y determinar, en caso de que la justificación de las actuaciones ejecutadas no fuera suficiente, si procede el libramiento de un importe inferior a la anualidad prevista o dejar la misma en suspenso, proponiendo la reprogramación del remanente en anualidades sucesivas.

h) Garantizar el intercambio de información entre la Administración General del Estado y la Diputación Foral de Álava.

i) Hitzarmen hau interpretatzea eta, hala badagokio, interpretatzean eta gauzatzean sortu daitezkeen eztabaidak konpontzea.

j) Hitzarmen hau aldatzeko proposamena egitea, hura sinatzen duten alderdietako baten ekimenez.

k) Hamargarren eta hamaikagarren klausuletan adierazitako eginkizunak, hitzarmenaren ebazpenari eta likidazioari lotuta.

Jarraipen batzorderako hitzarmenean berariaz ezarri ez den guztian, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeak (aurrerantzean SPAJL) atariko tituluaren II. kapituluko 3. atalean jasotako kide anitzeko organoei buruzko arauak aplikatuko dira. Lege horretako 19. artikuluan ezarritako ahalmenak izango ditu batzordeburuak.

Berdinketa gertatuz gero, batzordeburuak boto erabakigarria izango du, batzordean erabakiak hartzeko.

Batzordekideren batek eta haren ordezkioak (ordezkoa balego) bilkuran parte hartu ezin badu, botoa beste batzordekide bati eskuordetuko dio.

#### **BEDERATZIGARRENA. IGAE ESTATUKO ADMINISTRAZIOAREN ESKUHARTZAILTZA NAGUSIARI INFORMAZIOA EMATEA**

Bitariko Batzordeak, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioak eta Arabako Foru Aldundiak behar den informazio guztia banatuko dute Estatuko Administrazioaren Eskuhartzailtza Nagusiak, egokia iruditzen bazaio, kontrol funtzioak behar bezala egin ahal dezan.

#### **HAMARGARRENA. TITULARTASUNA**

Hitzarmen honetan jasotako errepideen

i) Interpretar el presente convenio y, en su caso, resolver en primera instancia las controversias que surjan en su interpretación y ejecución.

j) Proponer la modificación de este convenio, a iniciativa de cualquiera de las partes suscriptoras del mismo.

k) Las funciones descritas en las cláusulas décima y undécima en relación con la resolución y liquidación del convenio.

En lo no previsto de forma expresa en el convenio para la comisión de seguimiento, serán de aplicación las normas reguladoras de los órganos colegiados contenidas en la sección 3ª del capítulo II del título preliminar de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público (en adelante, LRJSP), correspondiendo al presidente de la comisión las facultades previstas en el artículo 19 de la citada Ley.

La presidencia ostentará voto dirimente en caso de empate a efectos de adoptar acuerdos en el seno de la comisión.

Si algún representante de la comisión no pudiera asistir a la reunión, ni tampoco su suplente, si lo hubiera, delegará su voto en otra persona integrante de la comisión.

#### **NOVENA. INFORMACION A LA IGAE**

La Comisión Mixta, el Ministerio de Transportes, Movilidad y la Diputación Foral de Álava facilitarán toda la información necesaria para que la Intervención General de la Administración del Estado pueda efectuar, si lo considera oportuno, el adecuado ejercicio de las funciones de control.

#### **DÉCIMA. TITULARIDAD**

La titularidad de las carreteras incluidas en este

titulartasuna Arabako Foru Aldundiari dagokio, eta hura arduratuko da errepideak kontserbatzeaz eta ustiatzeaz.

### **HAMAIKAGARRENA. ALDAKETA**

Hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean, alderdiek, bitariko batzordeak proposatuta, berariaz aldatu ahal izango dute hitzarmen hau, dagokion gehigarria sinatuz, alde zuzenetik nahitaezko izapide eta baldintza guztiak beteta.

### **HAMABIGARRENA. EBAZPENA**

1. Hitzarmena suntsiarazteko arrazoiak dira SPAJLk 51. artikuluan agindutakoak, bai eta jarduketak gauzatu ezin ahal izatea ere, edo azken horiek beharrezkoak izateari uztea.
2. Hitzarmena suntsiarazten bada, Programazio, Jarraipen eta Kontrolerako Bitariko Batzordeak espedienteen egoera administratibo eta ekonomikoaren akta egingo du, eta bide emango die Arabako Foru Aldundiak eta Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioak aitortutako betebeharrak edo eskubideei, SPAJLk 52. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.
3. Sinatzaileetako batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak betetzen ez baditu, beste alderdiak errekerimendu bat jakinarazi ahal izango dio alderdi ez betetzaileari, epe jakin batean bete ditzan bete gabetzat jotzen diren betebeharrak edo konpromisoak. Errekerimendu hori Programazio, Jarraipen eta Kontrolerako Bitariko Batzordeari eta beste alderdi sinatzaileari jakinaraziko zaie.

Errekerimenduan adierazitako epea gainditzean ez betetzeak jarraitzen badu, zuzendu zuen alderdiak ez betetzaileari jakinaraziko dio suntsiarazteko arrazoi dagoela, eta hitzarmena

convenio corresponde la Diputación Foral de Álava, que será responsable de su conservación y explotación.

### **DÉCIMA PRIMERA. MODIFICACIÓN**

En cualquier momento durante la vigencia de este convenio, las partes, a propuesta de la comisión mixta, de forma expresa, podrán modificar este convenio, mediante la suscripción de la correspondiente adenda, previo cumplimiento de todos los trámites y requisitos que resulten preceptivos.

### **DÉCIMA SEGUNDA. RESOLUCIÓN**

1. Son causas de resolución del convenio las establecidas en el artículo 51 de la LRJSP, así como la imposibilidad de ejecución de las actuaciones, o que estas hayan dejado de ser necesarias.
2. En el supuesto de resolución del convenio, la Comisión Mixta de Programación, Seguimiento y Control levantará acta de la situación administrativa y económica en que se encuentren los expedientes, dando curso a las obligaciones o derechos reconocidos por parte de la Diputación Foral de Álava y por el Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 52 de la LRJSP.
3. En caso de incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por parte de alguno de los firmantes, la otra parte podrá notificar a la parte incumplidora un requerimiento para que cumpla en un determinado plazo con las obligaciones o compromisos que se consideran incumplidos. Este requerimiento será comunicado a la Comisión Mixta de Programación, Seguimiento y Control y a la otra parte firmante.

Si trascurrido el plazo indicado en el requerimiento persistiera el incumplimiento, la parte que lo dirigió notificará a la parte incumplidora la concurrencia de la causa de

suntsiarazitat joko da. Hitzarmena arrazoi horrengatik iraungitzen bada, SPAJLk 51.2.c) artikuluan araututako prozedura kontraesankorraren ondoren, kalte ordaina ordainduko zaie hitzarmenaren gainerako egileei, arrazoi hauek direla eta: jadanik gauzatuta dauden jarduketan ondorioz edo ez betetze hori dela-eta beren gain hartu beharreko beste jarduketa batzuen ondorioz sortutako kalteak.

### **HAMAHIRUGARRENA. LIKIDAZIOA**

Hitzarmenaren iraunaldia bukatuta, hiru hilabeteko epean likidatuko da.

Horretarako, Arabako Foru Aldundiak bitariko batzordeari igorriko dio obren gauzatzea egiaztatzeko agiriak, desjabetzeak barne. Egiaztagiria aztertu ondoren, bitariko batzordeak hitzarmeneko sinatzaileei likidazioa onesteko proposatuko die.

Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioak hitzarmen hau aplikatuz Arabako Foru Aldundiari egindako igorpenen zenbatekoa Aldundiak gauzatutako zenbatekoa baino handiagoa bada, Aldundiak dagokion Altxor Publikoaren kontura itzuli beharko du soberakina, onetsitako likidazioa jakinarazi eta gehienez ere hilabeteko epean. Bestela, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioak ordainketa epe berean egingo du.

### **HAMALAU GARRENA. BALIOZKOTASUNA ETA ERAGINKORTASUNA**

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legeak 48.8 artikuluan xedatutakoaren arabera, hitzarmen hau alderdien baimenarekin hobetuko da, eta eraginkorra izango da estatuko sektore publikoko Lankidetzaren Organo eta Tresnen Estatuko Erregistro Elektronikoa inskribatzen denean. Erregistro hori zazpigarren xedapen gehigarrian aipatzen da, eta Estatuko

resolución y se entenderá resuelto el convenio. La extinción del convenio por esta causa, tras el procedimiento contradictorio regulado en el artículo 51.2.c) de la LRJSP, conllevará el pago de una indemnización a los demás otorgantes del convenio por los perjuicios causados derivados de actuaciones ya ejecutadas o como consecuencia de otras actuaciones que tengan que asumir debido al referido incumplimiento.

### **DÉCIMA TERCERA. LIQUIDACION**

Finalizado el plazo de duración del convenio, en un plazo de tres meses se procederá a la liquidación del mismo.

A tal efecto, la Diputación Foral de Álava remitirá a la comisión mixta, la documentación justificativa que acredite la ejecución de las obras, incluidas las expropiaciones. Tras analizar la documentación justificativa, la comisión mixta propondrá a los suscriptores del convenio la aprobación de la liquidación.

Si el importe total de los libramientos por el Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana a favor de la Diputación Foral de Álava en aplicación de este convenio fuera superior al importe total ejecutado por la Diputación, este deberá reintegrar el exceso a la cuenta del Tesoro Público que corresponda, en el plazo máximo de un mes desde que se hubiera notificado la liquidación aprobada. En caso contrario, el Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana procederá al pago en el mismo plazo.

### **DÉCIMA CUARTA. VALIDEZ Y EFICACIA**

Conforme a lo dispuesto en el artículo 48.8 de la Ley 40/2015 de Régimen Jurídico del Sector Público, el presente convenio se perfeccionará por la prestación de consentimiento de las partes y devendrá eficaz una vez inscrito en el Registro Electrónico estatal de Órganos e Instrumentos de Cooperación del sector público estatal, al que se refiere la disposición adicional

Aldizkari Ofizialean argitaratzen da.

Nolanahi ere, hitzarmen honen gainean gerora egin daitekeen edozein aldaketarako, sinatzaileen adostasuna beharko da, aho batez, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legeak 49.g artikuluan jasotakoaren arabera, eta aurreko paragrafoan ezarritako baldintza berberetan inskribatu beharko da, indarrean dagoen legeriaren arabera eskatu daitezkeen izapideak eta baldintzak bete ondoren.

#### **HAMABOSGARRENA. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA**

Esku hartzen duten alderdiek genero ikuspegia txertatu beharko dute hitzarmen honekin lotuta egiten dituzten jarduketara guztietan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan eta Arabako Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera.

#### **HAMASEIGARRENA. IZAERA ETA JURISDIKZIOA**

Hitzarmen hau administratiboa da, eta 40/2015 Legeak VI. kapituluan xedatutakoaren arabera egiten da. Hitzarmen hau aplikatuz Programazio, Jarraipen eta Kontrolerako Bitariko Batzordean ebatzen ez diren betebeharren interpretazioari eta betearazpenari buruz alderdien artean sortu daitezkeen auziak, honela ebatziko dira: Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak ezarritakoarekin bat etorritz.

Eta ados daudela adierazteko, dokumentu hau sinatu da adierazitako tokian eta egunean.

séptima y publicado en el «Boletín Oficial del Estado.

En todo caso, cualquier modificación posterior que pudiera acordarse sobre el presente convenio, que requerirá acuerdo unánime de los firmantes de acuerdo a lo recogido en el artículo 49.g de la Ley 40/2015 de Régimen Jurídico del Sector Público, deberá ser objeto de inscripción en idénticos términos a los previstos en el párrafo anterior, previo cumplimiento de los trámites y requisitos que sean exigibles de conformidad con la legislación vigente.

#### **DÉCIMA QUINTA. IGUALDAD MUJERES Y HOMBRES**

Las partes intervinientes incluirán la perspectiva de género en todas las actuaciones que les corresponda realizar en relación con el presente convenio, conforme a lo establecido en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, en la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres, y en el Decreto Foral 29/2017, del Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Álava de 23 de mayo.

#### **DÉCIMA SEXTA. NATURALEZA Y JURISDICCIÓN**

Este convenio tiene naturaleza administrativa y se celebra al amparo de lo dispuesto en el capítulo VI de la Ley 40/2015. Las cuestiones litigiosas que puedan surgir entre las partes relativas a la interpretación y ejecución de las obligaciones que en aplicación de este convenio no queden resueltas en la Comisión Mixta de Programación, Seguimiento y Control, serán resueltas de conformidad con lo previsto en la Ley 29/1988, de 13 de julio, de la jurisdicción contenciosa administrativa.

Y en prueba de conformidad, se firma el presente documento en el lugar y fecha indicados.





Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren  
estatu idazkaria

La Secretaria de Estado de Transportes,  
Movilidad y Agenda Urbana

Isabel Pardo de Vera Posada

Arabako Foru Aldundiko diputatu nagusia

El Diputado General de la Diputación  
Foral de Álava

Ramiro González Vicente